

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Pelotalekua Zubikoan

Azkenaldi honetan **obra haundixak** egin dira eta egiten dihardue Oñatiko **Zubikoa kiroldegixan**. Izan be, gure polideportibuak urtetxuak dako. Garai bateko Santa Anako komentuaren ortuan jaso zan, **1982ko akaberan hasi eta 1984ko amaiazian** amaittuaz. **Jabier Ortega Uribe-Etxebarria** arkitekto bilbotarraren ardurapeian modutu eben **Moiua** eraikuntza-enpresiak, **Eli Galdos** alkate zala. Oraingo obra honetan, dakizuenez, igerilekua zabaldu eta barriztau da, batez be. Baiña kiroldegiko **pelotalekuari be ikutu batzuk emun xaue**. Hormetako kolorian, esaterako. Argazkixak jatorrizko lanen fase bat erakusten dosku, harmaillak itxuratuta, baiña paretak eta teillatua artian egitteko egozenekua.

Oñatik **makinatxo bat pelotaleku** ezagutu dau historixan zihar. Arantzazutik aparte, dokumentutan agerketan xakun **zaharrena plaza zaharrian** eguen, gaur egungo kioskuaren eta jardifien arteko esparru horretan; XVIII. gizaldira orduko aittaketan da eta sasue haretan bote luzian eta errebotian jokaketan ei zan, ezker pareta bariko frontoian. **Hurrengua** haruntzatxuago moldau zan, ezkerreko horma eta guzti: **1860ko Korpustietan inaugurau zan** eta, aldaketa batzuekin hor jarraiketan dau zutik 160 urte geruago. Tarte luze horretan pelota-partidu ugari ez ezik, era askotako jaialdixak eta ikuskizunak be ospatu izan dira frontue zaharrian, eguraldixak horretarako aukeria jareten dauenian.

Estali bariko pelotalekua izatiak eragozpen hori dako. Dana dala, ezin ukatu Oñatiko plaza inguruari eskintten xauen ikuspegi zabal, nasai eta dotoria. Kiroldegikua itxixa danez, hainbeste traba barik bideratu ahal izan dira bertan azkenengo hiru hamarkada t'ardi honeittan **klase guztietako agerraldixak**: pelotari dagokixonak bereziki, baiña gaiñerako arluak baztertu barik: **bertsolariak, dantzarixak, antzerkixak, kantaldixak, abesbatzak, omenaldixak** eta abar.

Hala eta guztiz be, **eztira** honeik gure herriko **pelotaleku bakarrak**, ez horixe. **Arantzazuko seminarixuan** frontue bat baiño gehixago egon da menderik mende; azkenak 1955ian eraiki ziran eta kaletar askok ebalten zittuain. **Aratzekua** 1953an jasotakua dogu; **Zubillagakua** 1960xan; eta **San Lorentzoko** ikastetxekua, oraingo Eltzian, 1965ian. Auzuetako parrokiara eta ermitten elizpe batzuetan be jokatu izan da pelotan: **Aratz, Olabarrieta** edo **Madalenan**, adibidez. Desagertutakuen zirindaran, Arantzazukuekin batera, **Zinepekua** (Aloña ziniaren azpizan zana), **Berdura-plaza zaharrekoa** eta **Loiola** txokolategixakua (partikularra) sartu biharko lirake. **Garaiñena** be pribaua da eta bota barik dago oraindiok.

Fotografixia udal artxiboko Arzuaga fondokua da. Informaziñua Anaje Kortabarriaren, Xabier Zelaiaren eta Gerardo Uribetxerriak idatzitako Oñati. Pilota eta pilotariak liburuaren bittartez eskuratu dogu. Eskerrik asko danoiri.

Oharra. Aurreko hilleko argazkixari dagokixon testuan esaten geben ikurriñaren legalizaziñokuan Jesus Mari Isasmendi eguela orduko zinegotzixen artian. Bere seme Jonek adierazi dosku, aitta Eli Galdosen lehenengo legealdixan izan zala kontzejal, 1979tik 1983ra. Aurreko udalbatza haretan, 1976kuan, Bixente Unzurrunzaga Lizarralde izango zan zinegotzi, bere seme Bixentek konfirmau dauenez. Milla esker zuzenketengatik.